

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Udako ikastaro batek hondakinak kudeatzeko arazoa aztertuko du


Irailaren 14tik 16ra egingo da, Iruñeko Codestableko Jauregian

Martes, 13 de septiembre de 2011

Udako ikastaro batek hondakin erradiaktiboen, itsas hondakinen eta hilerri elektronikoen oraina eta etorkizuna aztertuko ditu, bai eta hondakin-mota horren kudeaketa ere Foru Erkidegoan. ["Kutsadura esportatuz: zabor transnazionalak: Arazoak eta irtenbideak"](#) izeneko ikastaroa irailaren 14tik 16ra burutuko da Iruñeko Condestableko Jauregian, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak finantzatzen dituzten [unibertsitate nafarren uda-ikastaroen](#) barnean.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide Publikoa-Kultura eta Gizartea Institutuaren Departamentuak antolatutako monografikoak hondakinak eta isuriak nola kudeatzen diren aztertuko ditu hamar saiotan, bertako ikuspegi nahiz ikuspegi transnazional batetik. Azpimarratuko dira, herrialde garatuetatik garatze-bidean dauden zonaldeetara esportatzen diren hondakin erradiaktibo eta elektronikoen, bai eta itsas hondoen erabilera ere hondakinak uzteko toki gisa. Gainera, arazo horren sorreran toki-mailak duen erantzukizunaz eztabaidatuko da, 2010-2020 Nafarroako hondakinen plan integral berrian oinarrituz.

Ikastaroa hiru gaitan banatzen da. Hala, asteazkeneko jardunaldian, irailak 14, Ángel Ruiz de Apodaca Nafarroako Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko irakasleak hondakin erradiaktiboen kudeaketa eta arazoa ikuspegi zabal batetik azalduko du, "Hondakin erradiaktiboen erregimen juridiko internazional, komunitario eta espainiarra" hitzaldian. Jarraian, ENRESAren (Hondakin Erradiaktiboen Enpresa Nazionala SA) Administrazio zuzendari Jorge Lang-Lenton-ek hondakin-mota horien ikuspegi transnazionalaz nahiz Espainiako ikuspegiarekin, eta Zentralizatutako



Hondakin-bilketa.

Aldi Baterako Biltegiak ariko da; azkenik, Greenpeace Espainiako zuzendari exekutibo Miren Gutiérrezek arazoak eta izan daitezkeen irtenbideak aztertuko ditu ikuspegi ekologista batetik.

Bestalde, ostegunean, irailak 15, saioak hondakin elektriko eta itsas isurien esportatzeko arazoan oinarrituko dira. Ildo horretatik, Foundation for International Environmental Law and Development-eko (FIELD) M^a José Ortizek "Itsasoko isuri eta hondakinak. Nazioarteko arazo eta tresnak" izeneko hitzaldia eskainiko du. Jarraian, Ecotic Fundazioko zuzendari-gerente Joan Riba-k Aparatu Elektriko eta Elektronikoen (RAEE) Hondakinen egungo arazoa arrazoituko du. Amaitzeko, Cosima Dannoritzer errealizadore, gidoilari eta zuzendariak Afrikako hilerrri elektronikoen berri eman eta Ghanako Agbogbloshie kasuaz jardungo du.

Programako azken jardunaldia, ostirala, irailak 16, "Maila orokorrean pentsatu, toki-mailan egin" gaiaren inguruan oinarrituko da, Nafarroako hondakinen kudeaketaz aritzeko eta sortu berri den kudeaketa-planera hurbiltzeko. Zehazki, NUPko Administrazio Zuzenbideko irakasle José Francisco Alenzak "Nafarroako hondakinen erregimena" hitzaldia emango du eta, horren ondoren, NILSAko eta Nafarroako Hondakin Partzuergoko zuzendari-gerente Andres Solak, hondakinak kudeatzeko ikuspegia eskainiko du bertako ikuspuntu batetik.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko Hondakinen Ataleko buru Raúl Salanuevak, berriz, 2010-2020 Nafarroako hondakinen plan integrala azalduko du. Azkenik, Ekologistak Martxan talde ekologistako eta Tres Erres Konpainiako kide Joseba Andonik plan integral horri ekologista nafarrek ikusten dizkioten eragozpenak azalduko ditu.